

UPV/EHUko PSIKOLOGIA FAKULTATEAREN KOMUNIKAZIO PLANA

Psikologia Fakultatearen komunikazio plan honen helburua informazioa zabaltzeko modua egituratzea da. Era berean, interes talde guztiei jakitera eman nahi die zein diren komunikazio foro eta eduki nagusiak. Oinarrizko eta zeharkako tresna bat da, ikastegiko Kalitatea Bermatzeko Sistemaren prozesu eta prozedura guztiak hartzen dituen neurrian.

Komunikatu eta zabaldu beharreko eduki nagusiak hauek dira:

1. Ikastegiak eskainitako graduako eta graduondoko tituluei buruzko informazioa.
2. Plan estrategikoa
3. Urteko kudeaketa planak.
4. Tituluen jarraipen txostenak.
5. Urteko kudeaketa txostenak.
6. Tutoretza plana: ikasleen harrera, berdinen arteko tutoretza plana, hautazkoak aukeratzeari buruzko informazioa, mugikortasunari buruzko informazioa, kanpoko praktikei buruzko informazioa, Gradu Amaierako Lanari buruzko informazioa.
7. Irteera profesionalak.
8. Curriculumez kanpoko prestakuntza eskaintza.
9. dekanordea
10. Doktoregoko Eskolaren programen eskaintza, Psikologia Fakultateko gradudunentzat interesgarria izan daitekeena
11. Psikologia Aplikatuko Zerbitzua
12. UPV/EHUko zerbitzu eta errektoreordetzetatik jasotako informazioa, baita gobernu organoetatik bidalitakoa ere (Gobernu Batzarra, Klaustroa, Campuseko Batzarra, Batzordeak, etab.).
13. Psikologoaren Elkargoetatik eta Dekanoen Batzarretik jasotako informazioa.

Jarraian, Psikologia Fakultatearen komunikazio plana aurkezten dugu, bi multzo handitan egituratuta:

1. Komunikazio eduki nagusiak zabaltzeko moduaren deskribapena
2. Komunikazio foro nagusien deskribapena

Bi multzoetan, komunikazio eduki edo foro nagusi bakoitzerako honako hauek deskribatzen dira: helburua, informazioaren hartzailak diren interes taldeak, zabaldutako edukiak eta horiek zabaltzeko bideak, informazioaren igoerleak, eta informazioa Ikastegiko Kalitatea Bermatzeko Sistemaren zer prozedurari dagoen lotuta.

Komunikazio Planaren ebaluazio eta hobekuntza adierazleak 6.2. Interes taldeen ebaluazioa prozeduran agertzen dira, ikasleei, irakasle-ikertzaileei eta TERAZELko langileei eginiko inkestaren bidez.

KOMUNIKAZIO EDUKI NAGUSIAK

IKASTEGIAK ESKAINITAKO TITULUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Tituluei buruzko informazio eguneratua ematea.	Informazioaren hartzaileak: ikasleak (errealak eta balizkoak), irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak eta Ikasleen Kontseilua. Elkargo profesionalak, gizartea, oro har.	<p>Edukiak: prestakuntza eskaintza, sarrera eta irteera profilak, tituluaren gaitasunak eta helburuak, ikasketa planaren egitura, irakasgaien irakaskuntza planak (gaitasunak, edukiak, irakats modalitateak, ebaluazioa, bibliografia), ordutegiak, azterketen datak.</p> <p>Bideak: unibertsitatearen webgunea, fakultatearen webgunea, ikasleen eskuliburuak, e-posta, irakasle-ikertzaile, TEKAZELko langile eta ikasleen kontseiluarekiko bilerak, ikasleentzako hitzaldiak ikasgeletan, fakultatearen informazio pantailak.</p>	<p>Unibertsitateak, ezarritako prozeduraren bidez, eskainitako tituluei buruzko informazioa argitaratzen du bere webgunean. Informazio hori ikastegiko webgunetik ematen da, intereseko bestelako informazioarekin batera.</p> <p>Gainerako edukientzat, Dekano Taldea da igorlea.</p>	PGS: 1.3. Ikasketa planak

PLAN ESTRATEGIKOA

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Ikastegiko Plan Estrategikoari buruzko informazioa ematea.	Ikastegiko irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak eta ikasleak. Fakultateko Batzarrak, ikastegiko sailak, errektorea eta errektoreordeak, gerentea, egresatuak, ikastegiko tituluetakako kanpoko praktiketan diharduten erakunde eta antolakunde laguntzaileak, Psikologoaren Elkargo Ofiziala, bigarren hezkuntzako zentroak.	Ikastegiko Plan Estrategikoa, paperean, Unikuden eta webgunean.	Dekano Taldea eta Kalitate Batzordea.	PGS: 1.1 Plangintza estrategikoa.

TITULUEN URTEKO JARRAIPEN TXOSTENAK

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Ikastegiak eskainitako Tituluaren Urteko Jarrailpen Txostenari buruzko informazioa ematea.	Ikastegiko irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak eta ikasleak. Fakultateko Batzarra, ikastegiko sailak, errektoregoa eta errektoreordetzak, kalitate agentziak.	Urteko txostena, paperean, Unikuden eta webgunean.	Dekano Taldea	PGS: 1.3.4 Ikasketen jarraipena eta akreditazioa.

URTEKO KUDEAKETA TXOSTENA

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Ikastegiko Urteko Kudeaketa Txostenari buruzko informazioa ematea.	Ikastegiko irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak eta ikasleak. Fakultateko Batzarrak, ikastegiko sailak, errektorea eta errektoreordeak, gerentea, egresatuak, ikastegiko tituluetak kanpoko praktikan diharduten erakunde eta antolakunde laguntzaileak, Psikologoaren Elkargo Ofiziala, bigarren hezkuntzako zentroak.	Urteko txostena, paperean, Unikuden eta webgunean.	Dekano Taldea	PGS: 1.2. Kudeaketaren plangintza

JARDUERA AKADEMIKOAK ETA KULTURALAK

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Fakultatean jardura akademikoak eta kulturalak bultzatzea, erraztea, planifikatzea eta argitaratzea (esate baterako, diplomen banaketak, arlo profesionalen lotutakoak, tesiak, kongresuak, ospakizunak...), eta campus antolatutako jardueretan (kontzertuak, antzezlanak...) parte hartzea bultzatzea.	Informazioaren hartzailak: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak, prestakuntza ari diren ikertzaileak, beka-dunak.	Titulartasuna, hitzaldien deialdiak, mintegi deialdiak, kongresuak, prestakuntza ikastaroak, fakultatearen jaiak, ikasgelategiko jarduerak, aitortza ekitaldiak, lehiaketak, liburutegiko jarduerak, kirol jarduerak, ikerketa proiektuak eta lankidetzak proiektuak. Diplomak banatzea: fakultateko eragile nagusiek parte hartzen dute, eta promozio-ikasleentzako partaidetzaren hainbat unean agertzen dira pantailan. Amaieran, lunch bat eskaintzen zaie ikasleei eta senideei. Ohiko bideak hauek dira: e-posta, Root, papera, Internet, kartelak eta pantaila. Fakultatearen webgunea eta sare sozialak.	Igorleak: Dekano Taldea, erakunde antolatzailea, TEKAZELko langileak, irakasle-ikertzaileak, errektoreordea, ikertzaileak, batzordea, liburutegia eta beka-dunak. Igorleek eginkizun hori idazkaritza, dekanoko eta batzordearen esku utzi dezakete.	PGS: 2.3 Graduondokoa eta ikerketa 2.4.7 Prestakuntza osagarria 2.4.8 Lanbide orientazioa eta laneratzea 2.4.9 Diplomak banatzea 3.3 Pertsonen egindako aitortzak.



IKERKETA				
Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Fakultateko ikertaldeek edo irakasle-ikertzaileek egindako ikerketa eta ezagutzaren transferentzia (doktorego tesiak, ikerketa proiektuak, ikerketa eta transferentzia hitzarmenak eta kontratuak, ikerketa jardunaldiak eta abar) sustatzea, ahalbidetzea eta ikusgai egitea.	Informazioaren hartzaiak: masterreko eta doktoregoko ikasleak, irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak, prestakuntzan ari diren ikertzaileak, gizartea eta zientzialariak. Hedabideak.	Tesiak gordetzea, defentsaren eguna, ikerketa jardunaldiak, Zientzia Astea, Master Astea, doktorego mintegiak, ikerketako lerro, talde eta proiektuak, ikerketa eta transferentzia hitzarmenak eta kontratuak, eta lankidetzaren proiektuak. Ohiko bideak hauek dira: e-posta, iragarki ohola, "psikonews" banaketa zerrenda, papera, Internet, kartelak eta pantaila. Fakultatearen webgunea eta sare sozialak.	Igorleak: dekanoko taldea, irakasle-ikertzaileak, Graduondoko Errektoreordetza, Ikerketaren arloko Errektoreordetza, ikertaldea.	PGS: 2.3 Graduondokoa eta ikerketa 2.4.8 Lanbide orientazioa eta laneratzea

PSIKOLOGIA APLIKATUKO ZERBITZUA				
Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Arreta Psikologikorako Zerbitzua Psikologia Fakultatearekin lotura estua duen UPV/EHUko zerbitzu bat da, eta baliabide espezializatuak eskaintzen dizkie unibertsitateko ikasleei bai arreta psikologikoaren alorrean, bai psikologia aplikatuaren beste alor batzuetan. Zerbitzu hauek eskaintzen ditu: 1.- Psikologia arloan unibertsitateko ikasleei emandako lehen mailako prebentzio programak egitea. Lehen mailako prebentzio arlo akademikoari lotutako arazo psikologikoak saihestera bideratuta dago, betiere osasun orokorra sustatu nahian. Zehazki, pertsonen baliabide pertsonalak areagotu nahi dira, eta haien bizi kalitatea hobetuko duten jokabide osasuntsuak bultzatu. 2.- Bigarren mailako prebentzio programak egitea, unibertsitateko ikasleentzat. Bigarren mailako prebentzioaren bidez, nahasmendu baten lehenengo faseetako konplikazioak murriztu nahi dira, eta nahasmenduaren iraupena gutxitu. Arazoekin edo nahasmenduekin lotutako kasuak edo arrisku jokabideak goiz	Informazioaren hartzaiak: ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta TEKAZELko langileak.	Interes taldeei PAZek eskainitako zerbitzuei buruzko informazioa ematen zaie. Irakasleei PAZekin lankidetzan aritzeko prozedurari buruzko informazioa ematen zaie. Ohiko bideak hauek dira: zerbitzuaren webgunerako sarbidea fakultatearen webgunetik, posta elektronikoa, webgunea eta fakultatearen sare sozialak.	Igorleak: PAZeko zuzendaritza, fakultateko Dekano Taldearen bidez.	PGS: 1.2 Urteko Kudeaketa Plana.

<p>atzemateko erabiltzen da arreta, hasierako fasean aldatu ahal izateko.</p> <p>3.- Laguntza psikologikoa ematea, eskatzen duten ikasleei. Hainbat saiotoako asistentzia psikologikoa eskainiko da: balorazio bat eta lehen iritzi diagnostiko bat, informazioa, orientazioa, babesa, aholkua eta bideratzea, behar izanez gero.</p>				
---	--	--	--	--

PSIKOLOGIAKO DEKANOEN BATZARRA ETA PSIKOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Psikologiaren arloko alderdi estrategikoetan estatuan hartutako akordioei buruzko informazioa ematea (ikasketa planak, titulu berriak, tituluen aldaketak, lanbidearen egoera, etab.).	Psikologia ematen duten fakultateetako dekanook, elkargo profesionalak, Fakultateko Batzarra, irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak eta fakultateko ikasleak.	Egindako lanei eta hartutako akordioei buruzko informazioa ematea. Ohiko bideak dira: Fakultateko Batzarrean informazioa zuzenean ematea, eta posta elektronikoa.	Dekano Taldea	PGS: 1.3. Ikasketa Planak; 5.2 Interes taldeekiko interakzioa; 2.4.8 eta 2.5.7 Lan orientazioa eta laneratzea (gradua eta masterra).

UPV/EHUko ERREKTOREA, KIDE ANITZEKO ORGANOAK ETA ZERBITZUAK

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Informazioa ematea UPV/EHUri lotutako alderdi estrategikoen inguruan hartutako akordioei buruz, Psikologia Fakultateari eragin diezaioketen neurrian.	Fakultateko Batzarra, eta fakultateko irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak eta ikasleak.	Egindako lanei eta hartutako akordioei buruzko informazioa ematea. Ohiko bideak dira: Fakultateko Batzarrean informazioa zuzenean ematea, eta posta elektronikoa.	Dekano Taldea	PGS: 1.1 Plangintza estrategikoa; 1.3 Ikasketa Planak; 5.2 Interes taldeekiko interakzioa

KOMUNIKAZIO FORO NAGUSIAK

FAKULTATEKO BATZARRA				
Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
<p>Ikastegiko Batzarra da ikastegiko kide anitzeko ohiko gobernu organoa.</p> <p>Fakultateko Batzarrak ikastegiko bizitza akademikoan eragina duten oinarrizko erabaki guztiak hartzen ditu. Fakultateko Batzarraren eskumen espezifikoak hauek dira:</p> <p>a) Ikastegiaren arautegia prestatu, eta Gobernu Kontseiluari proposatzea, onar dezan.</p> <p>b) Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria hautatzea, ikastegiaren arautegian hala aurreikusita badago.</p> <p>c) Gobernu organoei irakasleen plantillan eta administrazio eta zerbitzuetako langileen plantillan dauden beharrianak aurkeztea.</p> <p>d) Unibertsitateko planetan jasotako helburuak ikastegira egokitzeko plana onartzea.</p> <p>e) Hizkuntza normalkuntzako planak betetzeko eta planoi jarraipena egiteko premien memoriak aurkeztea Campuseko errektoreordeari, gero hark errektoreari edo, hala dagokionean, Gobernu Kontseiluari bidera diezazkion.</p> <p>f) Ikastegiari atxikitako irakasle lanpostuen eskarien txostena egitea.</p> <p>g) Ikasketa planak, haien jarraipena eta aldaketak egin eta proposatzea Gobernu Kontseiluari, bai eta titulazioak ezarri, aldatu eta kentzeko proposamenak ere.</p> <p>h) Ikastegiko atalen, sailen edo sail atalen proposamenez, irakaskuntzarako TEKAZELiegituren planak edo irakaskuntzan nahiz ikerketan sortutako bestelako premien planak osotasunean aztertu eta onartzea, ikastegiari atxikitako sailen edo sail atalen proposamenez.</p>	<p>Informazioaren hartzailak: irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak, ikasleen kontseiluko ikasleak eta Batzarreko kide hautetsiak.</p>	<p>Igorritako edukiak hauek dira: irakaskuntzari eta ikerketari lotutako informazio orokorra eta espezifikoa, aktak, hartutako akordioak, eta horri lotutako bestelako informazioa.</p> <p>Ohiko bideak hauek dira: EHUdoku-n dagoen informazioa, posta elektronikoz bidalitako mezuak (e-postak), eta dokumentuak paperean (postontzietan utzitakoak).</p>	<p>Kasu guztietan igorlea dekanoa da, eta hark bere orde izendatutako pertsona. Dekanoak eginkizun hori dekanoarean idazkariari eskuordetu diezaioke.</p>	<p>PGS: Prozesu guztiak.</p>



<p>i) Ikastegiak eskaintzen dituen ikasketen kalitatea aldiro ebalua dadin bermatzea, eta unibertsitatearen zerbitzu publikoa hobetzeko neurriak proposatzea.</p> <p>j) Bere zereginak betetzeko egoki deritzen batzordeak eratzea.</p> <p>k) Ikasleak ebaluatzeko arautegian zehazten diren kasuetarako, epaimahaiak hautatzeko prozedura zehaztea.</p> <p>l) Hizkuntza plangintza eta txosten ekonomikoa jasoko dituen urteko kudeaketa plana onartzea.</p> <p>m) Estatutuek eta horiek garatzeko arauk emandako gainerako eginkizun guztiak, edo UPV/EHUko gobernu organoek eskuordetzen dizkietenak.</p>				
--	--	--	--	--

FAKULTATEKO BATZORDEAK

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
<p>Fakultateko batzordeen helburu nagusia Dekano Taldeari eta Fakultateko Batzarrari laguntza ematea da, eskatzen zaizkien eginkizun eta lanetan. Batzordeen eginkizun espezifikoak ikastegiko arautegian daude jasota. Ikastegiko batzordeak hauek dira: Batzorde Iraunkorra, Akademia Antolakuntzako Batzordea, Kalitate Batzordea, Graduondoko Batzordea, Praktiken Batzordea, Euskara Batzordea, Berdintasun Batzordea, Epaimahaiak, Gradu amaierako Lanaren Batzordea, Hauteskunde Batzordea, Arautegien Batzordea eta Ekonomia Batzordea.</p>	<p>Informazioaren hartzailak: batzordeak eratzen dituzten irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak eta ikasleak.</p>	<p>Batzorde bakoitzaren buruak bileren deialdia egin eta bidaliko du, eta bertan, bilera egunaz gainera, informazio hau emango du: aztergaien zerrenda, dokumentazioa eta aurreko bileren aktak, hartutako akordioekin batera.</p> <p>Ohiko bideak hauek dira: e-posta, papera</p>	<p>Kasu guztietan igorlea batzordeburua da, edo hark bere orde izendatutako pertsona.</p>	<p>PGS: 2.4.3 Kanpoko praktikak; 4.1 Kudeaketa ekonomikoa; 4.2.1 Kredituen aitortza eta transferentzia. 4.2.3 Ebaluazio berezia; 4.2.4 Homologazioa; 6.4 Irakasleen irakaslanaren ebaluazioa; 4.2.5 Hauteskundeak; 2.5 OPO masterra; 2.4.6 Gradu Amaierako Lana</p>



BILERAK ESTAMENTUEKIN

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Helburu nagusia gogoetarako eta eztabaidarako espazioak sortzea eta bultzatzea da, dekanu taldearen eta fakultatean lanean ari diren estamentuetako kideen arteko barne aliantzak indartzeko: irakasleak eta ikertzaileak, TEKAZELko langileak, eta ikasleak.	Informazioaren hartzaileak: ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta TEKAZELko langileak.	Irakasle-ikertzaileei eta TEKAZELko langileei dagokienez, eginkizun profesionalari lotutako informazio esanguratsua (prestakuntza ikastaroak, dokumentuak...). Estamentu guztiei: eztabaidatu beharreko dokumentuak eta hartutako akordioak. Ohiko bideak hauek dira: e-posta, telefonoa, papera eta webgunea.	Kasu guztietan igorlea dekanoa da, edo hark bere orde izendatutako pertsona.	PGS: 5.2 Interes taldeekiko interakzioa; 3.2 Langileen etengabeko prestakuntza; 6.2 Interes taldeen gogobetetzearen ebaluazioa.

SAILAK

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Helburu nagusia informazio bide arin eta egonkor bat finkatzea da saileko zuzendariekin, ikastegiak nahiz errektoretzek bidalitako informazio interesgarria helarazteko eta sailetako zuzendarien eskaerak eta iradokizunak jasotzeko.	Informazioaren hartzaileak: saileko zuzendariak.	Errektoreordetzek, unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, Dekanoen Batzarrak eta Dekano Taldeak emandako informazio garrantzitsua. Bide nagusiak hauek dira: saileko zuzendariekin aurrez aurre egindako bilerak eta posta elektronikoa, ahozko komunikazioa.	Igorlea dekanoa da, edo hark bere orde izendatutako pertsona.	PGS: 5.2 Interes taldeekiko interakzioa; 2.1 Irakaskuntza Plangintza; 3.1 Langileen aukeraketa eta harrera; 4.1 Kudeaketa akademikoa eta administratiboa;



IKASLEEN KONTSEILUA				
Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Harreman arin eta egonkor bat finkatzea Ikasleen Kontseiluko kideekin, haien intereseko gai orokor guztiei buruzko informazioa emateko, erabakiak hartzeko prozesuetan haien parte hartzea bultzatzeko eta ikasleen solaskide gisa duen eginkizuna indartzeko.	Ikasleen Kontseilua, ikasleak.	Unibertsitateko goi mailako estamentuetako intereseko informazioa, jardunaldiei, ikastaroei eta curriculumez kanpoko prestakuntzari buruzko informazioa, Fakultateko Batzarraren erabakiei buruzko informazioa, eta Fakultateko Batzarraren batzordeek hartutako erabakiei buruzko informazioa. Ohiko bideak hauek dira: bilerak, oholak, kartelak ikasgeletako iragarki tauletan edo ohol orokorretan, posta elektronikoa, eta ahozko komunikazioa.	Igorleak: dekanoa edo hark bere ordezkariak, edo izendatutako pertsona, eta Ikasleen Kontseilurako hauteskundeetan aukeratutako ikasleen ordezkariak.	PGS: 4.2. Kudeaketa akademikoa eta administratiboa. 2.4.7 Prestakuntza osagarria. 6.2 Interes taldeen gogobetetasunaren ebaluazioa.

IKASGELA ETA TALDEKO ORDEZKARIAK				
Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Ikasgelako foroari dagokionez, helburu nagusia da talde bakoitzeko ikasleei informazio esanguratsua ematea, unibertsitateko bizitzan txertatzen laguntzeko eta haien parte hartzea bultzatzeko. Taldeko ordezkariak dagokienez, ikasleen eta fakultateko gainerako estamentuen arteko solaskideak izan daitezten lortu nahi da, ikasgelan sortutako zalantzak eta arazoak konpontzeko (ordutegi aldaketak, azterketa daten aldaketak) eta hobekuntza iradokizunak, kexak edo informazio interesgarria helarazteko.	Ikasgelan, ikasleak dira informazioaren hartzailak. Informazioa taldetan banatzen da. Taldeko ordezkarien kasuan, informazioaren hartzaila ordezkariaren ikasleen taldea da, oro har. Taldeko ordezkariak ikasgelan jasotzen dute fakultateko gainerako estamentuei helarazi	Ikasgelarako: ikasleentzako informazio garrantzitsua (irakaslea ez dela joango jakinaraztea, TEKAZELiegitura arazoak, ordutegi aldaketak, azterketa daten aldaketak...) Ordezkariarentzat: arazoak, aldaketak, txostenak eta oharak. Ikasgelan, ohiko bideak hauek dira: ahozko komunikazioa, ordenagailua, papera eta ohola. Taldeko ordezkarien kasuan, ohiko bideak hauek dira: kartelak taldearen ikasgelako oholean, taldean	Ikasgelarako nahiz taldearen ordezkariarentzako, igorleak hauek dira: Dekano Taldea, tituluko arduradunak, mailako eta irakasgaiko koordinatzaileak, irakasle-ikertzaileak, oro har, eta Ikasleen Kontseilua. Eginkizun hori, batzuetan, TEKAZELko langileen esku utz daiteke (kanpoko, ikasgelategiaren kasuan). - Era berean, igorleak hauek dira: informazioa dagokien estamentuetara helarazten duten taldeko ikasleak, ordezkariaren bitartez.	PGS: 2.4.4. Ikasketen koordinazioa eta gidaliburua; 6.2 Interes taldeen gogobetetzaren ebaluazioa; 6.3 IKE; 2.5.3 Masterreko irakaskuntzaren plangintza eta koordinazioa

	beharreko informazioa.	matrikulatutako ikasleen posta elektronikoa, eta ahozko komunikazio zuzena ikasgelan. Ikasgelako taldearen ordezkariak maiz komunikatzen dira ikasleen kontseiluarekin		
--	------------------------	--	--	--

TUTORETZA PLANA ETA TUTORETZAK				
Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
<p>Ikasleek behar adina informazio egokia eta pertsonalizatua jasotzea, beren psikologia ikasketak planifikatzeko, beren prestakuntza integrala aberasteko eta beren errendimendu akademikoa hobetzeko aukera izan dezaten.</p>	<p>Ikasleak, irakasle-ikertzaileak.</p>	<p>Tutoretza plana: fakultatearen eta ikasketa planaren antolakuntzari buruzko informazioa ematen da (harrera); informazio bide nagusietara iristeko orientazioa eta erraztasunak ematen zaizkie (berdinen arteko tutoretza); hautazkoak hautatzeari, mugikortasun programei, kanpoko praktikei eta gradu amaierako lanari buruzko orientazioa ematen zaie.</p> <p>Tutoretzetan: irakasgaiei buruzko zalantzak eta galderak.</p> <p>Tutoretzetan, ohiko bideak hauek dira: hitza, e-posta eta telefonoa.</p> <p>Tutoretza planean ohiko bideak hauek dira: harrera gida, webgunea, tutoretzapeko ikasleen eta tutorearen artean hilean behin egiten diren bilerak, posta elektronikoa.</p>	<p>Tutoretza Planaren igorleak: Dekano Taldea, tituluko arduradunak, mailako koordinatzaileak, irakasgaiko koordinatzaileak, programako tutore diren ikasleak.</p> <p>Tutoretzei dagokienez, igorleak irakasle-ikertzaileak dira.</p> <p>-</p>	<p>PGS: 2.4.1 Tutoretza plana: 1.3 Ikasketa Planak; 2.4.3 Kanpoko praktikak; 2.4.5 Mugikortasuna; 2.4.6 Gradu Amaierako Lana; 2.5.2 Masterraren Tutoretza Plana.</p>

KOORDINAZIO BILERAK, IRAKASGAIKA ETA MAILAKA				
Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
<p>Koordinazioa bultzatzea eta hobetzea irakasgai bateko</p>	<p>Irakasle taldeak eta ikasle</p>	<p>Bileretarako deialdiak egitea, helburu hauekin: ikasleen lanen eta kargaren plangintza egitea;</p>	<p>Graduko dekanordea, tituluko koordinatzaileak, irakasgaiko</p>	<p>PGS: 5.2. Interes taldeekiko interakzioa 2.4.4 Ikasketen koordinazioa eta gidaliburua; 2.5.3 Masterreko</p>

irakasle taldeen artean eta maila bereko gaien artean.	taldearen ordezkariak.	ikasgeletako dinamikaren berri izatea... Ohiko bideak hauek dira: e-posta eta ahozko komunikazioa.	koordinatzaileak eta mailako koordinatzaileak.	irakaskuntzaren plangintza eta koordinazioa
--	------------------------	---	--	---

IKE PROGRAMA (ESKER ONAK, IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERABAKIAK)

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Dekano Taldearen eta ikastegiko erabiltzaileen arteko barne komunikazioa hobetu nahi da, baita fakultatean emandako zerbitzuak ere. Horretarako, tresna arin bat egokitu nahi da, erabiltzaileen kexak, esker onak, eskaerak eta iradokizunak bertatik bertara ezagutzea ahalbidetuko duena.	Ikastegiko estamentu guztiak (irakasle-ikertzaileak, TEKAZELko langileak eta ikasleak).	Erabiltzaileen esker onak, iradokizunak, kexak eta erreklamazioak. Ohiko bideak hauek dira: paperean inprimatuta edo webgunea.	Igorlea erabiltzailea da. Hartzailea, berriz, Dekano Taldea.	PGS: 6.1 Analisia, berrikusketa eta hobekuntza; 6.3 IKE.

ATEAK ZABALTZEKO EGUNA, UNIBERTSITATE ORIENTAZIOKO JARDUNALDIAK, ETA MASTERRAREN ASTEA

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
Helburu nagusia da hainbat ekintza estrategiko programatzea eta egitea. Horrela, etorkizuneko ikasleei Psikologiako Graduaren eta fakultatean dauden masterren ikasketa planen berri zehatza eman, eta irteera profesionali eta fakultatean emandako zerbitzuei buruzko informazioa emango zaie, ikasle berriak hartzeari begira.	<p>Ateak Zabaltzeko Eguna: UPV/EHUK ezarritako datan, martxoan eskuarki, ateak zabaltzeko eguna egiten da, IAZren koordinaziopean. Ateak Zabaltzeko Egun horretan, balizko ikasleei psikologia tituluaren nondik norakoak eta Psikologiaren jardun eremu nagusiak azaltzen zaizkie. Era berean, bisita gidatu bat egiten da ikastegian barrena, ikasle laguntzaileen kargura.</p> <p>Unibertsitate orientazioko jardunaldiak: urtarrian eta otsailean, UPV/EHUK unibertsitate orientazioko jardunaldi bat antolatzen du, campus bakoitzean. Hiru larunbatetan egiten dira, goizez; campuseko bana. Psikologia Fakultateak stand bikoitza eskatzen du, hiru ordezkari izateko</p>	<p>Informazioaren edukiak izango dira: antolakuntza akademikoa, irtenbide profesionali lotutako alderdiak eta ikastegiko TEKAZELiegiturei eta baliabideei (pertsonek eta materialak) buruzko informazioa.</p> <p>Erabilitako komunikazio bideak hauek dira: hitza, ordenagailu bidezko aurkezpenak, triptikoa eta papera. Fakultatearen webgunea eta sare sozialak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kasu guztietan Dekano Taldea da igorlea. Dekano Taldeko kideek eginkizun hori irakasle-ikertzaileen, TEKAZELko langileen eta bekadunen esku utz dezakete. - Masterren arduradunak. 	PGS: 2.1. Ikasleak gaitzea



	<p>betebarra betetzen du, eta bertan fakultateko ikasle izan daitezkeenei informazioa ematen zaie. Horrez gain, bi hitzaldi ematen dira (E eta G), psikologoaren lanbidea zertan datzan azaltzeko. Azoken aurretik, bi hitzaldi online izaten dira (E eta G) Graduan interesa agertu duten ikasleak dituzten batxilergoko institutu etako eskaerari erantzuteko.</p> <p>Masterraren astea: Martxoan, masterraren astea antolatzen du unibertsitateak, hiru campusetako graduondoko eskaintza ezagutzera emateko. Psikologia Fakultateari stand bat ematen zaio, Graduondoko balizko ikasleei informazioa emateko. Era berean, master bakoitzaren koordinatzaileak informazio hitzaldi bat ematen du, antolakuntzak programatutako saio batean.</p>			
--	---	--	--	--

HARRERA PROGRAMAK: TEKAZELko LANGILEAK, IRAKASLE-IKERTZAILEAK ETA PRESTATZE BIDEAN DIREN IKERTZAILEAK				
Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
<p>A) TEKAZELko langileen harrera: Psikologia Fakultatean lanean hasitako TEKAZELko langileei dekanok eta administrariak egiten diete harrera, eta gainerako lankideen aurrean aurkezten dituzte. TEKAZELko langileei informazioa ematen zaie fakultatearen antolakuntzari buruz eta haien kontratuan jasotako eskubide eta betebarrei buruz. TEKAZELko langileei laguntza ematen zaie honako hauek izapidetzeko: baimenak, oporraldiak, kontratuak, mediku altak eta bajak, etab.</p> <p>B) <u>Irakasle-ikertzaileen eta prestatze bidean diren ikertzaileen harrera:</u> Psikologia Fakultatean sartutako irakasle-ikertzaileei eta prestatze bidean diren ikertzaileei. Ongi etorria egiten zaie, eta administrariak oinarrizko hainbat alderdi azaltzen eta izapidetzen dizkie, hala nola</p>	<p>Ikastegira sartutako TEKAZELko langileak, irakasle-ikertzaileak, eta prestatze bidean diren ikertzaileak.</p>	<p>Kontratua sinatzea, funtzioak eta eginkizunak zehaztea, ordutegia, lehen harremana, postura bideratzea, harrera, eta identitateak.</p> <p>Ohiko bideak hauek dira: telefonoa, posta elektronikoa eta aurrez aurrekoa.</p>	<p>A) TEKAZELko langileak: Igorleak: administraria, atezaina eta dekanoa. Igorleek beren eginkizuna utz dezakete atezain nagusi/menpekoaren eta bulegoko buruaren esku.</p> <p>B) Irakasle-ikertzaileei eta prestatze bidean diren ikertzaileei dagokienez, dekanoren idazkaria, dekanoa eta administraria dira igorleak.</p>	<p>PGS: 3.1. Langileen hautaketa eta harrera</p>



unibertsitate txartela, posta elektronikoa, eta fakultatearen egitura. Gero, dagokien saileko zuzendariarengana laguntzen zaie, eta han zuzendariak berak hasten du harrera prozesua.				
---	--	--	--	--

ADMINISTRAZIOA

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
<p>Administrazioak hiru helburu hauek ditu:</p> <p>1.- TEKAZELko langileak gidatzea eta koordinatzea, fakultatearen prestakuntza programa eta zerbitzuak kudeatzeko, beren eskumeneko gaietan hartutako erabakiak betearazita.</p> <p>2.- Fakultateari esleitutako ondasunen inbentarioa eguneratzea.</p> <p>3.- Ikastegiko aurrekontua eraginkortasunez kudeatzea.</p>	<p>Informazioaren hartzaileak: TEKAZELko langileak, irakasle-ikertzaileak eta ikasleak.</p>	<p>Unean uneko oharrak, kanpoko informazioa, kudeaketa akademikoa, azpiegituren kudeaketa, kudeaketa ekonomikoa, lanaren antolakuntza, ikastaroak eta deialdiak.</p> <p>Ohiko bideak hauek dira: banaketa zerrenda, webgunea, ikastegiko memoria, ohola, eta aurrez aurrekoa.</p>	<p>Igorlea administraria da edo hark bere orde zuzendatutako pertsona.</p>	<p>PGS: 4.1 Kudeaketa ekonomikoa; 4.3.1 Kudeaketa; 4.3.2 Zerbitzuen kudeaketa.</p>

IDAZKARITZA NAGUSIA

Helburua	Interes taldeak	Edukiak eta bideak	Igorleak	Kudeaketa
<p>Ikastegiko antolakuntza akademikoaren funtzionamendua bermatzea:</p> <p>a) Irakasle-ikertzaileak: aktak sinatzea eta erregistro orokorrerako sarrera erraztea.</p> <p>b) Ikasleak: informazioa ematea eta izapidetze administratiboa erraztea prozedura hauetan: matrikulazioa, espedientea lekuz aldatzea, ziurtagiriak, baliozkotzeak, prestakuntza jarduerak egiteagatiko kredituen amortizazioa, tituluen homologazioa, taldeen eta hautazkoen aldaketak, kredituen konpentsazioa eta tituluen igorpena.</p>	<p>Informazioaren hartzaileak: Dekano Taldea, irakasle-ikertzaileak, TEKAZEL eta ikasleak.</p>	<p>Kudeaketa akademikoa eta izapide administratiboak.</p> <p>Ohiko bideak hauek dira: aurrez aurrekoa, telefonoa, e-posta eta webgunea.</p>	<p>Igorlea bulegoko burua da, edo hark bere orde zuzendatutako pertsona.</p>	<p>PGS: 4.1. Kudeaketa akademikoa eta administratiboa</p>